noaua



IGERILEKUA ETA SAUNA ZABALDU DITUZTE

Sute baten ondorioz, hamalau hilabetez itxita egon dira eta erabiltzaileek gogotsu hartu dute bi zerbitzuen irekiera / 07 or.

ARGAZKIA: UDALA



NOAUA

Erosi Hurbilagoko saltokietan eta eskuratu urrezko piruleta sariduna / 03



NOAUA

Azaroaren 29ko hauteskundeetarako mahaikideak, hautatuak / 10



NOAUA

Elkarrekin uxatu zuten Hezur Lapur, urteko gaurik ilunenean / 11



'Patrick' euskarazko filma eskainiko dute igande arratsaldean Sutegin / 22



KARABANAK

Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua
24 orduz hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

NAUTIKA

Salmenta, konponketak eta mantenua
24 orduz hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

Intxaurreta z/g, Aginaga, Usurbil - Tel.943 362 660
www.noraianautika.eus - info@noraianautika.eus

FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



errigora

Auzolanean euskara

sustraitik espaziora

errigora.eus

urriak 22 - azaroak 12

Eskatu zure saskia
eta eman **%25**
Nafarroa erdi
eta hegoaldeko
euskalgintzari



Saski beltza 60€



Saski berdea 65€



Saski gorria 75€

+ osagarria: **"euskararen haziak ereiten" egutegia** 10€



Erosi herrian eta eskuratu urrezko piruleta sariduna

Hemen da, Hurbilagoren kanpaina berria. Beste behin, herrian erosteak saria dakar. Izan ere, herriko saltokietan erosketak egitearen truke piruleta bat jasoko duzue, gorria bada dastatzeko. Baina, adi, urre kolorekoa egokitzen bazaizue, sariduna izango da; erosketak egiteko erosketa-karroa eskuratu ahalko duzue. Urrezko piruleta egokituz gero, "ez jan piruleta eta erosketa egin duzun komertzioan utzi, zure oparia jaso ahal izateko".

Hurbilago elkarteak ohartarazi duenez, "denda, jatetxe, taberna bakoitzean urrezko piruleta bat egongo da. Zorte on!!".



"Denda, jatetxe eta taberna bakoitzean urrezko piruleta bat egongo da".

Garbigune mugikorra, Kalezarrera

Azaroaren 5ean Santueneatik Kalezarrera lekuz aldatuko du Udalak garbigune mugikorra eta bertan izango du hilaren 11ra arte. Hilaren 12an, Mikel Laboa plazara eramango dute. Bestalde, azaroaren 8a izango da hurrengo errefus bilketa eguna.

"Emakumea eta ariketa fisikoa" saioa Pelaioenean

Saio horixe antolatu du Usurbilgo Emakumeon Etxeak udazken honetarako antolaturiko eskaintzaren baitan. Azaroaren 13an izango da, 17:00etan Kalezarko Pelaioenean. Agurtzane Alkorta Urdanpilleta izango da saioko hizlaria.

1969koak larunbatean batuko dira Mahaspildegin

Mahaspildegin da hitzordua, 12:00etan. Bazkaria ordea 14:30ean hasiko da, Artzabalen. 50 euroko ordainketa egin beharko da: ES32 3008 0259 1547 7191 6121 (Rural Kutxa). Ordainketa egiterakoan, 69 eta izena idatzi. Izena emateko epea azaroaren 3an ixtekoa zen.

Azaroaren 13an, "Herrimamituz" bertso-saioa Zubietan

Zubieta Lantzen elkarteak antolatu du azaroaren 13an 19:00etan Zubietako elizan. Andoni Egaña Makazaga eta Iñigo Mantzizidor Larrañaga "Mantxi" bertsolariek eta Xabier Alberdi Lonbide historialariak parte hartuko dute hitzorduan.

noaua TOKIKOM

Argitaratzailea: Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria: Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Kudeatzailea: Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea: Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna: Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailea: Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.120 ale.
Imprimategia: Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

Usurbilgo Udala

BIKAIN
EUSKARAREN KALITATE-ZIURTAGIRIA

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI

Primerakoa

Etxean bost gara gaur egun. Afaria etxera heldu diren lehenek prestatu dutenez, besteek harrikoa egin eta sukaldea txukuntzea adostu dugu. Kirolaren eta lanaldiaren izerdiak dutxan garbitzera joan dira batzuk, eta besteak, beheko solairuan geratu dira, lanak amaitzen eta osteko hitzorduaren zain.

Aste tartean, ez dugu afalostean elkarrekin telebista ikusteko ohiturarik. Normalean, bakoitzak bere oherako bidea hartzen du. Baina gaurkoan, Primeran plataforman estreinatu duten Super Manterola telesail berriak gugan sortutako ikusmina dela eta, sofan egin dugu hitzordua oheratu aurretik.

Barre algaraka irentsi ditugu lau atalak, aspaldian euskaraz eta halako erregistroan ezer berririk ikusten ez genuela elkarri oroituz. Aurpegi ezagunak, umore gureago edo gertuagoko bat, hizkuntzaren erabilera naturala, inguruan sumatzen edo bizitzen ditugun egoera eta jarrerak mahai gainean jarri eta lantzea... Saioak, osagai eta pertsonai aproposak nahasten dituela iruditu zitzaidan eta oro har, halako zerbaiten falta sumatzen genuela ere aipatu genuen telebista aurrean bildu ginenok.



'Super Manterola' telesailaren pareko "zerbaiten falta sumatzen genuen".

Horrez gain, nire kasuan, aspaldiko garaiak ere etorri zitzaizkidan gogora. Amona etxean bizi zeneko sasoira egin bainuen salto. Gauetan, Goenkale ikusten zuen gelan, leiho aldeko hormaren erpinean kokatzen zen telebista txiki batean. Hasiera batean akaso, ohean bertan batzen nintzaion, baina koskortu ahala, ohepean esertzen ginen anaia eta biok. Alfonbraren gaineko zirrikitua baliatuz, eta batez ere, amonaren konpainia, kexa eta algarak elkarrekin partekatuz.

Gero, Arraldeko gorabeherek garatzen eta eguneratzen segi zuten. Eta arrazoiak erabat ulertzen ez banituen ere, amonak jada ez zela lehengo gauza bera zioen eta ikusteari utzi ziola esango nuke. Kontrara, gure lagunartean amaiera-arte ikusten segi genuela uste dut.

Baina atzetik edo hobe esanda, tartean ere, etorri ziren Wazemank bezalako gutiziak ere, eta eskerrak. Oraindik ere, askoren memorian jarraitzen dute abesti ezagunen bertsio zoragarri horiek, Arregitarren mozolokeri eta bestelako atal bikainek. Tamalez, eduki labur, bizkor eta globalizatuen garaiotan, erabat aldatu edo aldarazi dute berau kontsumitzeko modua ere.

Urrun sentitzen ditudan gaztetxoenei zuzendutako euskarazko eduki berri eta arrakastatsuak sortu diren arren, aspaldian ez dut nire burua zinema, bakarrizketa edo antzerkiez gaindiko esparruetan, sofaren lasaitasunean eta unea ingurukoekin partekatuz, esfortzu askorik gabe barre egiten aurkitu. Primerako sentsazioa da, eta faltan sumatzen nuen.

“Santuenea martxan!” tailerrak

Auzo elkarteak asteotarako bi tailer antolatu ditu:

Azaroak 20, ostirala
• 17:00 Ontzien dekorazioa “Gure Txikiak” ludotekan.

Azaroak 21, larunbata
• 17:00 Belarritako eta koilareen tailerra “Gure Txikiak” ludotekan.

1957an jaiotakoen ospakizuna

Azaroaren 21ean bilduko dira bazkaritarako Patri jatetxean. “Oraindik animatu ez denik bada” izena emateko gonbita egin dute. Izena azaroaren 14ra arte eman ahalko da, telefono zenbakiotako batera deituta:
620 231 299 (Juantxo).
617 392 767 (Iñaki).

Sortaldek Añorgara bizikleta martxa antolatu du

Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitateakbizikleta martxa antolatu du Usurbildik Añorgara, azaroaren 14an. Goizeko 11:00etan abiatuko da Usurbilgo frontoitik. "Foru Aldundiari Usurbilgo herrigunea eta Añorga zuzenean lotuko dituen bidegorria egin dezan eskatzeko”.



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.

ZER DIYO?

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA, USURBILGO ALKATEA

Eskerrik asko, Usurbil

Emozioak eta sentimenduak dantzan eta borborka dituzunean, hitzek hegan egiten dute, eta, ondorioz, ez zait erraza lerro hauek idaztea. Azkenaldian maiz galdetu izan didatena gutun honen bidez jakinarazi nahi dizuet usurbildar guztiei: 2027ko hauteskundeetan ez naiz berriro EH Bilduren alkategaia izango.

Atzera begira jarri eta aitortu behar dizuet duela zortzi urte EH Bilduren alkategai izateko egin zidaten proposamena onartzea ez zela xamurra izan; eta zer diren gauzak, orain, Usurbilgo alkatetza uzteko erabakia hartzea ere ez da erraza izan. A ze paradoxa! Urte hauetan guztietan, nire egunerokoaren eta bizitzeko modu baten parte izan zarete herria, herritarrak eta Usurbilen aldeko etengabeko lana eta jarduna. Eta horri agur esatea ez da nolanahiko kontua. Izan ere, pasioz bizi dut udalgintza. Nekeak neke, ilusioa eta indarra badut oraindik, emankor eta sortzaile nagoela zinez uste dut, eta izugarri gustatzen zait egiten dudan lana, are, inguruan ekipo eta lantalde zoragarria izanik, eta batez ere, proiektu sendoa izanik. Haatik, ondo pentsatu eta hausnartutako erabakia izan da: argi dut etapak hasi egiten direla eta ondo hastea bezain garrantzitsua dela ondo bukatzea, eta, horrenbestez, uzteko momentua iritsi dela sinetsita nago.

Usurbilgo EH Bildu berrikuntza fasean dago. Belaunaldi berri bat batu da mahai politikoaren ardurak hartzera, eta argi dut, orain, belaunaldi horri dagokiola lidergo politikoa hartzea, eta niri erreleboa ematea. Gurea proiektu kolektiboa da, eta EH Bilduren herriko komunitate zabalean bada jende prestua, konprometitua eta gaitasun handikoa gisa honetako ardura politiko eta instituzionalei heltzeko, eta gurea bezalako proiektu sendo eta sustraituek behar dute, horrenbestez, aldian-aldian haize freskoz eta ideia berri eta begirada herrituez blaitzea. Zorionez, Usurbilen, alderdi hori bermatua daukagu. Segurtasun osoz diot baieztapen hori. Harrotasunez. Zentzu horretan, ez dut dudarik Usurbilgo EH Bilduk alkategai izateko proposatutakoa gaitasun handiko pertsona dela. Nire babes eta konfiantza osoa du.

Gainerakoan, urte hauetan guztietan egindako lanarekin pozik eta harro noa.



"Ez naiz berriro EH Bilduren alkategaia izango".

XXI. mendeko gizarte honek dituen erronkei tokikotik eta sen eraldatzailez eta komunitarioz erantzuteko, herri estrategiak diseinatu eta martxan jartzeko gai izan gara, eta udalgintza ulertzeko eta egiteko modu horrek kokatu du Usurbil arlo askotan abangoardian. Proiektu berritzaile eta eraldatzaile ugari ditugu esku artean, eta Usurbil eredu da bai Euskal Herrian bai Euskal Herritik kanpo ere. Horren adibide dira, besteak beste, Europatik jaso ditugun bi sariak.

Horregatik, Usurbilgo alkate izatea ohore handia izan da niretzat, eta zortekoa izan naiz han eta hemen herri honen izenean eta ordezkari gisa aritu naizelako. Horrenbestez, eskerrak eman nahi dizkizuet, bihotz-bihotzez, nirekin batera bide hau egin duzuen guztioi. Eskertza-zerrenda luzea dut:

-Nire lehen esker eta maitasun hitzak Igor, Haizea eta Araitzentzat dira: zuek gabe ez naiz nor, eta erronka honetan giltzarria izan da eskaini didazuen babes inkondizionala. Maite zaituztet!

-Lagun kuadrillari: konplize izan ditut eta maite ditut denak!

-Nola ez, udal taldekide izan ditudanei: erronka hau erraztu didazue, eta bidea zuekin egitea erabat erosoa, gustagarria eta, batez ere, aberasgarria izan da. Zuengatik merezi izan du!

-Oposizioko zinegotziei, elkarlanagatik, eta desadostasunak gorabehera, herriaren alde lan egiteko egiten duzuen ahaleginagatik.

-Bidean ezagutu ditudan gainerako alkateei: nire inspirazio iturri izan zarete sarri askotan, eta betirako lagun zoragarriak daramatzat nirekin!

-Udaleko langileei, zuen eguneroko lan eta konpromiso eskergagatik. Zortekoak gara usurbildarrok zuek bezalako langile publikoak izateagatik!

-EH Bilduko mahai politikoko kide eta komunitate osoari, emandako konfiantza eta babesagatik. Sekulakoa izan da!

-Herriko eragile, elkarte eta talde guztiei, Usurbil bizigarriagoa izan dadin, izugarria baita egiten duzuen inurri lan etengabea. Herri honen altxorra eta aktiborik bereizgarriena zarete. Bejondeizuela!

-Aipamen berezia egin nahi diet Emakumeen Etxeko talde sustatzaileko kide eta gazte feministei: zuen konpromiso eta ekarpen feministak bihurtzen du Usurbil herri hobeago eta justuago batean!

-Eta, batez ere, herritar guztioi, zuen aldetik askotan sentitu dudan babesa, laguntza eta egin dizkiguzuen ekarpen guztiengatik. Jakin badakit batzuetan ez dugula asmatu, gaizki egindakoak ere joan dira zortzi urte hauetan, baina jakin badakigu herri bat eraikitzea ez dela beti iritzi berekoak izatea eta batzuetan kritikak eta desadostasunak entzuteko prest egon behar dugula. Elkar entzunez eta elkar errespetatuz, ordea, elkarrekin aurrera egiteko moduak bilatzen saiatu gara zintzotasunez.

Alkatetzan egindako urte hauetan guztietan, gauza askotaz jabetu naiz: pertsonen eta elkar entzute eta elkar zaintzaren garrantziaz, komunitatearen indarraz eta herri txiki batek duen gaitasunaz gauza handiak egiteko, ere nortasunari eta sustraiei eutsiz. Hori da, azken batean, gure herria, eta urte hauetan bizitakoak, ezagututako pertsonak eta elkarrekin partekatutako uneak nirekin eramango ditut.

Agur esateko gutuna bada ere, oraindik ez noa/ez goaz, izan ere, ekainera bitarte oraindik ere lan asko dugu egiteko. Proiektu asko ditugu esku artean, eta motxila bete lan daukagu. Eta indarra eta ilusioa sobera ditugu. Orain artean bezalaxe, azken txanpa honetan ere, alboan nahi zaituztegu.

Komunitateari ekarpena egitea nire bizitzari zentzua eta balioa ematen dion konpromiso militante sakona da, partekatutako proiektuetan eta ingurukoen ongizatean eragiteko modua baita, eta horregatik, ekainetik aurrera ere, beste toki batetik bada ere, usurbilgintzan eta euskalherrigintzan ikusiko dugu elkar.

Mila esker, bihotz-bihotzez.

IKA-MIKA

Zaintzarekiko begiak zabalduz

IZASKUN SILVA

Lau urte daramatzat profesionalki pertsonen zaintzan lanean, eta denbora honetan ikasi dut zaintzea beharrak asetzea baino askoz gehiago dela: laguntzea, entzutea eta pertsona bakoitzaren izaera eta berezitasunak errespetatzea da.

Duela egun batzuk All of a Sudden filma ikusi nuen, Ryûsuke Hamaguchi zuzendari japoniarrarena. Hiru ordu eta erdiko film honek pertsonen zaintza du ardatz, eta gogoeta egitera eraman ninduen, bai zaintzeko dugun moduaz, bai egunero laguntzen ditugun pertsonekin harremantzeko dugun moduaz.

Batzuetan, beste begirada bat behar dugu keinu txikien balioaz berriro jabetzeko.

1. Begirada: begi-kontaktua

Pertsonarengana hurbildu edo ukitu aurretik hari begiratzea bera aintzatesteko eta gertutasuna adierazteko modu bat da. Begirada lasai batek honako hau esan diezaioke: "Hemen nago, zurekin eta zuretzat".

2. Ahotsa: lasaitasunez hitz egitea

Ahots goxoa erabiltzea, esaldi errazak baliatzea eta erantzuteko denbora ematea funtsezkoa da. Pertsona guztiak ez dira hitzen bidez komunikatzen; keinuekin, begiradekin eta mugimenduekin ere adierazten dira. Seinale horiek ulertzen ikastea ere laguntzeko modu bat da.

3. Ukimena: inbaditu gabe laguntzea

Ukitu aurretik, egingo duguna azaltzea eta leuntasunez hurbiltzea komeni da. Presak saihesteak eta pertsona bakoitzaren erritmoa errespetatzeak segurtasuna eta konfiantza ematen dituzte. Ez da gorputz bati eustea soilik, pertsona bati errespetuz laguntzea baizik.

4. Mugikortasuna: autonomia errespetatzea

Ahal den guztietan eta segurtasunez, adineko pertsonek oinez ibiltzen eta mugitzen jarraitzea sustatu behar dugu. Batzuetan, presaka gabiltzalako, beraiek oraindik egin ditzaketen gauzak egiten dizkiegu. Beraiei denbora emateak autonomia, konfiantza eta ingurunearekin duten harremana mantentzen laguntzen die.

Elkarrekin ibiltzea ere zaintzea da.

Amaitzeko:

Agian, zaintzea berriro begiratzen ikastea da: pertsona bere beharren gainetik ikustea, entzutea, bere erritmoa errespetatzea eta bere urratsei laguntzea.

Pertsona bakoitzaren atzean istorio bat, oroitzapenak eta desioak daude. Hitzak desagertu edo mugimenduak moteldu arren, duintasunez, errespetuz eta maitasunez tratatua izatea merezi duen bizitza bat dago oraindik.

Agian, horrela zaintzeak zaintzak antolatzeko modua berriz pentsatzera ere behartzen gaitu. Pertsona bakoitzaren denborak errespetatzeak denbora, gertutasuna eta behar adina profesional izatea eskatzen du. Horrek baliabideak behar ditu, bai, baina zaintza duinago eta gizatiarrago baten aldeko apustua ere bada.

Horregatik, zaindu dezagun nola begiratzen dugun, nola hitz egiten dugun, nola ukitzen dugun eta nola laguntzen dugun.

Izan ere, ez gara beharrak asetzen ari soilik; bizitzak zaintzen ari gara.

Zaintzea hor egotea da. Eta benetan hor egotea maitasuna adierazteko beste modu bat ere bada.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia.
Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus

650 Usurbil Bizi otarrak urte amaieran zozkatuko dituzte

Usurbilgo Udalak, Kulturguneak eta Hurbilago elkarteak sustaturiko 650 Usurbil Bizi Otarrak zozkatuko dituzte urte amaieran, herri sorkuntzaz eta ekoizpenaz horniturikoak. Usurbilgo ekoizleek eta sortzaileek azaroaren 6ra arteko tartea dute eskaintzak egiteko. Oraingo honetan, haien establezimenduetan kontsumitzeko 50 euroko bonoak edo deskontuak ere eskaintzeko aukera izango dute. Ekoizle bakoitzak eginiko eskaintzaren truke, 50 euro gehiago jasoko ditu, 250 euro guztira. Honako hau dute izen-emateko lotura: labur.eus/650otarra2026

Lanbide Eskolaren izendapen berria, ofizialki onartua

Aurreko ikasturtean ospaturiko 50. urtemuga zikloko ekimenen abiapuntuan, eskolaren izen eta irudi berria aurkeztu zuen Zubietako Lanbide Heziketako ikastetxeak. Izan ere, ordutik, iazko ekaina amaieratik, Zubieta Lanbide Eskola izena du. Dena den, Eusko Jaurlaritzak aldaketa hori orain onartu du ofizialki. Aldaketa "EAEko Unibertsitateaz Kanpoko Ikastetxeen Erregistroan" inskribatua geratuko da. Izen generikoa Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua izango du; izen espezifikoa, aldiz, aipatu moduan, Zubieta Lanbide Eskola.

Zuen iragarkia hemen
publizitatea@noaua.eus
747-486-835

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com
·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK
943 36 91 39

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81



Azaroaren 14an eta 15ean, instalakuntza eraberrituen irekiera ospatuko dute. Puzgarriak ipiniko dituzte igerilekuan.

Kiroldegiko igerileku eta sauna eraberrituak zabalik

lazko abuztuaren 27an izandako sutearen ondotik egin beharreko berrikuntza lanak amaituta, hilaren 2an ireki zuten Oiardo kiroldegiko igerilekua eta sauna.

Irekiera horrekin batera jarriko dituzte martxan Oiardoko uretako ikastaroak ere. "Urrian egin dituzte prestaketa lanak, eta 400 izen-emate izan dira", jakinarazi du Udalak. Urtebete eta bi hilabete pasatxoko itxieraren ondotik, instalakuntza eraberrituon irekiera ospatu egin nahi du Usurbilgo Udalak. Horretarako, azaroaren 14an eta 15ean, "haur eta gaztetxo abonatuentzako puzgarriak jarriko dira igerilekuetan". Udalak ohartarazi duenez, "igerilekuen gehieneko edukiera ez gainditzeko, txandak ezarriko dira, eta izena ematea beharrezkoa izango da". Bi egun horietan, gainerako erabiltzaileek ez dute igeri egiteko aukerarik izango.

"Sauna berriak lehengoak baino espazio handiagoa du"

Berrikuntza lanak Igez Eraikuntzak enpresak egin ditu. 641.000 euroko kostua izan dute. Aseguruak osorik finantzatu ditu udaberrian hasitako eraberritze lanak. "Esleipendunek azaldu zutenez, azpiegiturak izan dira, hain zuzen, lanik gehien eskatu diena. Igerilekuen kasuan, zoruan epoxy materiala eman da, iraunkorragoa delako, eta inguruko harlauzak berritu dira. Sauna berriak lehengoak baino espazio handiagoa du".

Nerea Ibarzabal nagusitu zen Eibarko finalaurrekoan

Asier Azpiroz Iztueta zubietarrak parte harturiko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako Eibarko finalaurrekoan, Nerea Ibarzabal Salegi nagusitu zen. Urriaren 31n Ipurua kiroldegian jokatutako saioan lehiatu ziren haiekin Nerea Elustondo Plazaola, Alaia Martin Etxebeste, Miren Artetxe Sarasola eta Oihana Iguaran Barandiaran. Finalaurrekoetako bigarren itzulirako sailkatu zen Ibarzabal. "Gainontzekoek, puntuazioaren arabera izango dute finalaurrekoen bigarrengo itzulira sailkatzeko aukera", antolatzaileen esanetan.



Nerea Ibarzabal, Eibarren kantari.

Film grabaketa Saroen

Usurbilgo Udalak jakinarazi duenez, film grabaketa baten eszenatokia izango da herria egunotan. Izan ere, Paul Urkijo berriki bere laugarren film luzea grabatzen hasi da; "Hiru olatuak" izenekoa hain zuzen. "Itsasoan ezkutatzen diren arriskuei eta itsasoak jainko atabiko, pagano eta beldurgarri gisa duen botereari" buruzko istorioa da. Zenbait pasarte Usurbilen grabatuko dituzte egunotan, Saroe jauregiaren barruan hain zuzen.

Trafiko-mozketa puntualak

Ondorioz, astearte arratsaldeko 18:00etan hasi eta ostiral iluntzeko 20:00ak arte, Kale Nagusiko zenbait aparkaleku erreserbatuak egongo dira, grabazio hori tarteko. Horrez gain, Udalak ohartarazi duenez, "grabaketak barrualdean izango badira ere, tarteka, trafiko-mozketa puntualak ere eragin ditzake". Potxoenea ere baliatuko dute, aldagela gisa.

Greben zikloa abian Osakidetzan

LAB, SATSE, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek greba eguna deitu zuten urriaren 30ean Osakidetza osoan, bertako langileen lan-baldintzak duindu eta osasungintza publikoa hobetzeko. Azaroaren 17rako elkarretaratzeak deitu dituzte osasun-etxeetan, abenduaren 9tik 11ra herrialdez herrialde greba egunak (hilaren 11n Gipuzkoan), eta abenduaren 14an Osakidetza osoan. Negoziazioa desblokeatzeko ardura Osakidetzaren Zuzendaritzari dagokio, gehiengo sindikalaren arabera. "17 urte baino gehiagoz Akordio Arautzailea osorik berritu gabe egon ondoren, profesionalek hobekuntzak behar dituzte, beren lanaldian, ordainsarietan eta lan-baldintzetan".

Mintzalagun egitasmoan parte hartzeko aukera

Euskara ahotan gehiagotan eta hobekiago hartzeko Mintzalagun egitasmoa abian jartzera doaz. Horretarako bidelagunak behar ditu ekimenak; bidelariak eta bidelagunak.

Parte hartzeko 16 urte baino gehiago izan behar dira. Izena emateko interesa dutenak bideotatik jarri ahalko dira hartuemanetan Mintzalagun egitasmoaren sustatzaileekin: zerbitzuak@ttakun.eus / 650 459 354.

Euskararen mintzapraktikan aritzeko taldeak osatzeko "ezinbestekoak dira bi profil hauek: batetik, bidelariak, egunerokoan euskaraz aritzeko solaskiderik ez dutenak; bestetik, berriz, bidelagunak, bide horretan laguntzaile izan nahi dutenak".



Bidelariak eta bidelagunak behar dira.

Dinamika asterokoa izaten da. "Lau-bost laguneko talde txikiak astean behin elkartzen dira, giro atsegina, hurbila eta parte hartzeko erraza izateko. Astean behingo hitzorduez aparte, gainera, ekimen honetan parte hartzen duten mintzalagunen topagune ere izan nahi du, euskararen bueltan sarea sor dadin; horregatik, urtean zehar ekintza osagarriak ere antolatzen dira, aisialdiarekin eta gozamenarekin lotutakoak".

Harreman-sareen garrantzia

Mintzalagunen helburua, "ahozko gaitasuna lantzeaz gain, euskaraz aritzeko ohiko oztopoak (lotsa, zailtasuna, ohitura falta eta abar) gainditzea, eta, beraz, hizkuntza-ohituretan eragitea". Izan ere, euskaraz biziberritzeko hiztun berriak sortzeko ezinbestekoa izateaz gain, "hiztunaren lana ez da ikasgelako martxara mugatzen; hizkuntza hitz egiteko eta hobetzen jarraitzeko, beharrezkoak dira harreman-sareak, eta, horretan, funtsezko zeregina du euskaraz ondo moldatzen den herritarrak".

Informazio gehiagorako: mintzapraktika.taupamugimendua.eus

Nekazaritzako makinen IAT azterketa egiteko aukera Alkartasuna kooperatiban

ITEVELESAk nekazaritzako makinen ITV-IAT delakoa egingo du azaroaren 23an astelehena, goizeko 08:45etik eguerdiko 14:30era, Alkartasuna kooperatibaren kanpoaldean. Udalarekin batera antolatu duten hitzordu honetarako, "aurrez eskatu behar da txanda; horretarako Irungo IAT estaziora deitu behar da: 943 62 63 00 zenbakia markatu, eta 1 sakatu behar da Irungo estazioarekin hitz egiteko".

Alkartasunatik aditzera eman dutenez, "50'54 euroko kostua du ikuskapenak eta eskudirutan egin behar da ordainketa, kopuru zehatza eramanda". Halaber, beharrezkoa izango da seguruaren ordainagiria eramatea.

Porrotx, Mari Motots, Pupu eta Lore, ikuskizun berriarekin bueltan

Aurten ere, abenduaren 3ko Euskararen Egunaren harira, geure hizkuntzari eskainitako ekimenen zikloa antolatu dute hainbat eragileek. Tarte horri hasiera emango dio Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren ikuskizun berriak, "Muxu bete urte" izenekoak. Azaroaren 21ean eskainiko dute emanaldia, 17:00etan Oiardo kiroldegian. NOAUA! Kultur Elkarteak eta Usurbilgo Udalak antolaturiko hitzordurako sarrerak azaroaren 5etik aurrera eskuratu ahalko dira 8 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman. "Musuz bete ditzagun udazkena, negua, udaberria eta uda. Musuz urtea eta bizitza. Musuekin gure lurra ere biraka jartzen delako, kantuan eta dantzan. Eta gu berarekin! Ze zapore du marigorringo baten musuak? Konta daiteke urte oso bat musutan? Zatoz pailazookin eta jakingo duzu!", egin dute gonbita. Emanaldi horrez gain, Euskararen Gala antolatu du Aginagako Eliza Zaharra Elkarguneak hilaren 28an, gaueko 22:00etan. Sarrerak aurrez eskuratu beharko dira usurbilkultura.eus plataforman. Hitzordu gehiago ere izango dira abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunean.



Azaroaren 21ean, Oiardon.

Udazken oparoa iragarri dute udal liburutegian

Idazle eta ipuin kontalari asko bertaratuko dira datozen asteetan, Sutegi udal liburutegian:

Azaroak 9, astelehena

• 18:30 Literatura solasaldia Alaine Agirre idazlearekin.

• Zehaztasunak: "Mintzagai izango dugun liburua, Alaine Agirreren *Euri eta ateri* (Elkar) izango da. Idazlea gure artean izango da. Jada eskuragarri ditugu liburutegian aipatu liburuaren hainbat ale".

Azaroak 12, osteguna

• 18:00 Pello Añorgaren ipuin kontaketa saioa 3-5 urtekoentzat.

• Oharra: txikienak heldu batek lagunduta joatea komeni da.

Azaroak 23, astelehena

• 18:00 Ines Bengoaren ipuin kontaketa, 6 urtetik gorakoentzat.

Azaroak 27, ostirala

• 17:00 Irakurketa solasaldia 9 urtetik gorakoentzat. Yolanda Arrietaren *Mari Xor* (Denonartean) liburua izango dute mintzagai.

Azaroak 30, astelehena

• 17:00 Irakurketa solasaldia 12 urtetik gorakoentzat. Yolanda Arrietaren *Zurtz* (Denonartean) liburua izango dute mintzagai. Argitalpen honekin, Yolanda Arrietak Euskadiko Haur eta Literatura Saria irabazi berri du.

• Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.



Mundualdia larunbat honetan ospatuko da.

Herriko jatorri aniztasuna, plazara

Usurbildarren sorterrien topalekua izango da larunbatean herria, Mundualdia ekimenari esker. Aurretik, heriotza eta kulturartekotasuna hitzaldia antolatu dute Sutegin.

Azaroak 5, osteguna

• 18:00 "Komunitatetik, heriotzaz" zikloaren baitan, "heriotza eta kulturartekotasuna" hizpide duen solasaldia Sutegiko auditorioan.

• Zehaztasunak: "hainbat jatorritako herritarren arteko solasaldia, sorterrian heriotza bizitzeko duten moduaz. Lehenik, gaian aditua den Eduardo Ruiz Vieytez Deustuko Unibertsitateko irakasleak gaiaren inguruko sarrera eta kokapena egingo du. Ondoren, solasaldia izango da: Argeliako, Saharako, Euskal Herriko eta Venezuelako herritar banak parte hartuko dute, Trapezistak programako arduradun batek gidatuta".

• Hizkuntza: gaztelania.

• Sarrera: gonbidapenak aurrez eskuragarri usurbilkultura.eus plataforman.

Azaroak 7, larunbata

• 10:00 Zirimara Familia Plana.

• 18:00 Hainbat jatorrietako 20 bat postuetako jakien dastaketa: Sahara, Nikaragua, Mongolia, Nigeria, Venezuela, Ekuatore Ginea, Mauritania, Kolonbia, Kuba-Ukraina-Euskal Herria, Polonia-Argentina...

Kolonbiako dantza eta musiken girotzea: Walter Sanchezek saltsari gorazarre egingo dio, eta Asociación Cultural Integración Sin Fronteras elkartearen dantza kolonbiarren erakustaldia.

"JAKIEN DASTAKETARAKO 20 BAT POSTU IRAGARRI DITUZTE LARUNBATEKO MUNDUALDIRAKO"

Badator, Txalaparta Festa

Jexux Artze K.E.-k sustaturiko txalapartaren kultura plazaratzeko urteroko jaialdia bueltan da. Hilaren 14rako iragarri dute aurtengo edizioa:

Azaroak 14, larunbata

• 11:45 Herri erromeria Mikel Laboa plazan. Adar deia, Zuaznabartarrak, Goikoetxeatarrak, Zabalegitarrak, txalaparta ikasleen emanaldia, albokariak, txalaparta irekia, txorizo eta sagardo banaketa.

• 14:00 Kalejira Albokariekin Patri jatetxera.

• 14:30 Bazkaria Patri Jatetxean: txartelak aurrez erosi behar dira 30 eurotan usurbilkultura.eus plataforma bidez, azaroaren 10a baino lehen.

• Bazkarian zehar, Txalaparta Irekia.

• 18:30 Olanoenea plazatik hasita kontzertuak herrian zehar:

-Jexux Artze Txalaparta eskola.

-Makilakixki.

-Esku-Txa hirukotea Txalaparta &+.

20:00 Bihotx kontzertua Dema Plazan.

'Go!azen'-en denboraldi berriko lehen atalaren proiekzioa

Azken urteon ildotik, Usurbilgo Udalak, herri hau kide duen UEMA-k eta EITB-k Euskal Telebistaren telesail ezagunaren denboraldi berriko lehen atala proiektatuko dute bitan, azaroaren 13an; 18:00etan eta 19:30ean Sutegiko auditorioan. Sarrerak aurrez eskuratu ahalko dira doan, usurbilkultura.eus plataforman. EITB-k aurreratu duenez, "guztiz eraberrituta aurkituko dugu oraingoan Basakabi. Wellington Basakabi kantu akademia maila handiko ikasleak hartuko dituen barnetegia izango da aurrerantzean, exijentziaz beterikoa". Sutegiko proiekzioen egun berean estreinatuko dute lehen atala Makusin eta hilaren 20an, ETB1 katean.



Azaroaren 13an, Sutegin.

Hil Arte Biziren tailerra

"Gure erabakitzeko ahalmena osasun sistemaren aurrean" izeneko saioa antolatu du Hil Arte Bizi egitasmoak azaroaren 16an, 18:00etan Potxoenean.

Aipatu ekimeneko sustatzaile Nere Erkiagak gidatuko du iragarri den tailerra. "Pazientearen autonomiari eta osasun sisteman ditugun eskubideei buruz jardungo du eta Aurretiazko Borondateen Dokumentua nola bete azalduko du, borondatea adierazi ezin dugunerako eskura daukagun tresna baliotsua".

KzGunera datozen ikastaroak

Azaroaren 2tik aurrera, goizez irekiko dute KzGunea, 09:00-13:00 artean. Hauek dira hurrengo asteotan eskainiko diren ikastaroak:

• Azaroak 2-4, 09:00-11:00 "Adimen artifiziala, ChatGPT eta haren alternatibak".

• Azaroak 5-16, 09:00-11:00 "Kudeatu zaitez Google aplikazioekin".

• Azaroak 17-30, 09:00-11:00 "Ofimatika tresnak. LibreOffice".

Informazio gehiagorako:
Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net



Udaltzaingoaren bidez jasoko dute jakinarazpena mahaikide hautatuek.

Hauteskundeetarako mahaikideak, hautatuak

Aplikazio informatiko baten bidez ausaz hautatu zituzten, Espainiako Gorteak (Madrilgo Diputatuen Kongresua eta Senatua) berritzeko bozketa egunean lan egitea egokituko zaien herritarrak. Aukeratuei egunotan helduko zaie jakinarazpena.

ARITZ LASARTE

Guztira, 72 izango dira. Izan ere, zortzi mahai eratuko dira. Bakoitzean, lehendakari titular bana eta bina bokal ariko dira lanean. Haietako bakoitzak, ordea, bina ordezko izango ditu. Hitzordu horri begirako hauteslekuak zehaztuak ditu hauteskunde batzordeak. Aurreko deialdien antzera, zortzi izango dira; hiru Udarregi ikastolaren eraikin gorriko erdiko aretoan kokatuko dituzte eta beste mahai bana, Santuenea Kultur Elkartearen egoitzan, Aginagako eskolan eta Zubieta Lanbide Eskolan (Donostia aldeko zubietarrek eskola txikian izango dute hauteslekua). Beste bi, Kalezarko haur eskolaren eraikinean kokatu izan dira, baina birgaitze lanetan dutenez, oraingo honetan, Ugartondoko Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioan kokatuko dituzte. Norbera non dagoen erroldatua, mahai batera edo bestera jo beharko du botoa ematera.

Posta bidezko botoa

Azaroaren 29an presentzialki parte hartu ahalko da hauteskundeetan. Bestela, aldez aurretik posta bidez ere botoa emateko aukera izango da. Hilaren 19ra arte eskatu ahalko da modalitate horretan parte hartzea, correos.es atarian edo erakunde beraren bulegoan. Hilaren 25era arteko epealdia egongo da beharrezko dokumentazioa jaso ostean, modu horretan botoa emateko.

ALDEZ AURRETIK POSTA BIDEZ BOTOA EMATEKO AUKERA IZANGO DA. HILAREN 19RA ARTEKO EPEA DAGO HORRETARAKO

Zuberoako ikastolak laguntzeko garaia

Zuberoako ikastolak lagundu eta bertako ekoizpenak ezagutarazi eta dastatzeko moduan jartzea helburu duen kanpaina martxan da. Hiru saskiok dituzue aukeran:

• Pettara (52 euro): ahate gibel berrosatua, eztia, ardi gazta kiloa, bixkotx sukratuak eta pastak.

• Arbaila (57 euro): eztia, bixkotx artisanalak, kilo erdiko bi ardi gazta, bixkotx gatzatuak, erreximenta, pastak eta tisana.

• Basabürüa (70 euro): mozkin biologikoz osatutako saskia (lukainka, euskal pastak, patea, eztia, piper ezti ozpina, sagar zukua eta gasna).

• Eskabideak: ikaskoli.eus nahiz NOAUA! bidez.

Errigoraren eskabideak bideratzeko azken astea

Azaroaren 12ra arte egin ahalko dituzue "Euskarari Puzka" kanpainako eskaerak errigora.eus nahiz NOAUA! K.E. bidez.

• Beltza: 60 eurotan, ardo beltz gaztea, ilarrak, kardua, mahats zukua, oliba olioa, orburuak, patxaran mantekatuak, pikillo piperrak, potxak, teilak, zainzuriak.

• Berdea: 65 eurotan, dilista lehorrak, oliba olioa, orburuak, ozpina, pasta, pikillo piperrak, sagar zukua, tomate frijitua, txitxirioak, txokopipitak, zainzuriak, kuia krema.

• Gorria: 75 eurotan, ardo beltza (18 hilabetez barrikan), ardi gazta, ardo txuria, molineritoak, oliba olioa, patxarana, pikillo piperrak, polboroiak, turroia, zainzuriak.

2027ko egutegi landagarria: gutxienez kaxa bat erostearen truke, "euskararen haziak ereiten" izeneko egutegi landagarria 10 eurotan eskuratzeko aukera.

Elkarrekin uxatu zuten Hezur Lapur, gau ilunenean

Jolasean, kalejiran, dantzan... Gau Beltza komunitatean bizi izan du bigarren urtez herri honek.



Gau Beltzaren aurtengo sustatzaileak, ospakizun amaierako talde argazkian.

Ezin izan zen ikusi, baina entzun bai. Honenbestez, hor zegoela, gertu zebilela sentitu ahal izan zuten. Hezur Lapur gure artera heldu zen urriaren 31n, urteroko ohiturari hutsik egin gabe, geure artean beldurra hedatu nahian. Baina iaz bezalaxe, sendotzen doan komunitate bat aurkitu zuen aurrez aurre, hark eragindako izua desegiteko prest zena. Gau Beltzak horixe du eta helburu nagusia, beldurrak ikusgarri egin eta elkarrekin aurre eginez uxatzea. Herri honek badu izaki beldurgarri propioa, Hezur Lapur, baina baita bera eta berak eragindako izua uxatzeko azkar errotzen doan esaldia, elkarrekin oihukatu zutena larunbatean, Dema plazan eginiko ekitaldian: "Agur beldur! Agur Hezur Lapur!".

Beldurrak komunitatean uxatzeko eguna bizi izan zuen herri honek iragan asteburuko Gau Beltzarekin. Aurrez idatzitakoak nahiz unean bertan apuntatutako beldurrak erre zituzten. Dantzan ere aurre egin zioten plazan bertan, baita aurrez argiztapena kendutako hainbat guneetan (ikastola, Artzabal, Aranerreka, Errekatxiki, Kalezarko plaza...) jolasean aritu ziren, askotariko izaki eta arimen artean.

Aurrez Kalezarren eginikoaren ondotik, bigarren urtez ospatu da Gau Beltza Usurbilen, atzerriko ohiturei aurre egiteko tokiko erantzun gisa eta ohitura hori errotzeko asmoz. Irudiotan ikus dezakezuenez, sustraitzen doa ekimena.

"BELDURRAK KOMUNITATEAN UXATZEKO EGUNA BIZI IZAN ZUEN HERRI HONEK"



Beldurrei jolasean aurre egin zieten HH-LH6 maila arteko ikasleek.



Erronketako parte hartzaile talde bat.



Askotariko arimak kalejiran, Gau Beltzean barrena.



The Hastelen´s, aurtengo Gau Beltzaren soinu-banda.



Sortaldek azaroaren 14an bizikleta martxa egingo du Usurbil eta Errekalde arteko bidegorria aldarrikatzeko.

"Gure helburua bizikleta garraio tresna gisa erabiltzea da"

FERNANDO ITURRALDE SORTALDE USURBILGO ENERGIA KOMUNITATEA

Fernando Iturralde urteetan joan izan da Donostiara lanera bizikletan, eta bidea nahiko "aldrebesa" dela jakin badaki. Horregatik, bidegorria eraikitzearen aldeko borrokan dabil.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Bizikleta martxa bat egingo duzue Usurbildik Añorgara bidegorria eskatzeko. Nondik joango da bidegorri hori?
Guk dakigunez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektuaren arabera, bidegorri sarea egin nahi zuten. Donostiatik Mutrikurako bidegorria pasako litzateke Usurbildik. Egia da, Donostiatik Errekalderaino oso txukun dagoela, Errekaldetik Urbilera ere bai, baina hortik Usurbilera ez dago lotura zuzenik. Zubietan barrena egin dezakezu bidea, baina Usurbilera etortzeko buelta handia suposatzen du horrek. Guk entzundako azken kontua da, bidegorria Usurbilera etorriko dela trenbidearen azpitik, eta hortik Atallura aterako litzateke. Txikierdiraino Urbiletik etorri nahiko bide txukuna dago eta gero, trenbidearen azpialdetik gurdibidea dago Atallu aldera. Hortik, gero, gora igo beharko litzateke herrira iristeko. Guretzako hori nahiko aldrebesa da. Iruditzen zaigu Usurbilek bide zuzenagoa merezi duela Donostiara joateko.

"GURETZAKO ZUZENENA, ERREKALDETIK ERREPIDE ONDOTIK EKARTZEA LITZATEKE"

Alternatiba gisa errepide ondoan egitea ikusten duzue?
Guretzako zuzenena Errekaldetik errepide ondoan ekartzea izango litzateke. Gu ez gara teknikariak eta ez dakit nora joango litzatekeen hori. Gaur egun, badago Usurbildik Donostiara bizikletan lanera joaten den jendea. Gure helburua, batez ere, bizikleta garraio tresna gisa erabiltzea da, kotxea ordezkatzea. Ikusten dugu posible dela Lasartera edo Donostiara lanera joateko. Gertatzen dena da, Donostiara joateko bideak nahiko aldrebesak direla: edo Zubietan barrena joaten zara eta itzuli handia da; edo Kalezartik barrena Ibaetara joan zaitezke, baina hortik, malda handiak dituzu eta bizikletarentzat ez da oso aproposa; edo, azkenik, errepidea, baina badakigu zein arriskutsua den.

"NI DONOSTIATIK USURBILA NATORRENEAN, N-634 ERREPIDETIK NATOR"

Zein da bizikleta martxaren helburua?
Bi helburu ditugu: herrian bizikletaren erabilera sustatzea garraio gisa, eta itxurazko bidea erreklamatzea Usurbildik Donostiara joateko. Guk zirkuitu bat egitea planteatzen dugu. Usurbilgo plazatik ateratzea litzateke Zubietan barrena Urbileraino eta Urbili buelta emanez Errekalderaino joango ginateke. Gero, buelta N-634tik Usurbileraino bueltatu nahiko genuke, guk uste dugulako biderik zuzenena dela Usurbilgo plazara iristeko.

Arazorik izan duzue baimenekin?
Oraindik baimenik ez dugu. Udaletxeak esan digu berari dagokion eremuan lagunduko ligukeela eta ez genukeela arazorik izango. Trafikoaren arduradunei eskatu diegu Errekaldetik Usurbilera N-634 errepidetik etorri ahal izatea. Ez dakigu baimena emango digun ala ez. Egia da, alternatiba joan eta etorri bide beretik egitea dela.

Bidegorriak N-634ko trafikoa arinduko luke?
Ni Donostiatik Usurbilera zuzenean natorrenean, errepidetik nator eta enbarazua sortuko dut, baina ez dut beste alternatibarik.



Azaroaren 13an, Zubietako elizan egingo dute "Herrimamituz" saioa, arratsaldeko 19:00etan hasita.

"Zubietako zortzi pasarte dira, jasotako moduan kontatuta"

IÑIGO MANTZIZIDOR LARRAÑAGA 'MANTXI' BERTSOLARIA

Iñigo Mantzizidor eta Andoni Egaña bertsotan ariko dira azaroaren 13an 19:00etan Zubietako elizan "Herrimamituz" saioan, Xabier Alberdi historialariak bertako pasarteak kontatu ostean.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

Zerri buruzkoa da "Herrimamituz"?

Covid garaian sortu genuen proiektua da. Xabier Alberdiri elkarrizketa batean aditu nion, orain dela 500 urte beste izurrite bat izan zela, eta izurrite horren ondorioz, Zarauzko herriak biztanleria asko galdu zuela. Hainbesteko biztanleria galdu zuen, udal izaera ere galdu zuela, eta hiruzpalau urtez Getariako auzoa izan zen. Nik historia hori ez nuen sekula entzun, eta Alberdiri galdetu nion ea horrelako pasarte gehiago zituen. Baiezkoa esan zidan, eta saio bat egitea proposatu nion, non hark istorioak kontatzen zituen, gero guri gai gisa balioko zigutenak bertsoetarako. Andoni Egañarekin hitz egin nuen. Prest azaldu zen. Ideia gustatu zitzaion berari eta hor gabiltza hirurok saioak eskaintzen. Deitzen gaituzten herrietako historia kontatzen dugu, eta kasu honetan, Zubietako zazpi edo zortzi pasarte izango dira, eta kronologikoki ordenatuak, antzinatik gaur egunera arte.

"'HERRIMAMITUZ' SAIOETAN, BATZUETAN GAI SENTIKORRAK ATERATZEN DIRA HERRIKOENTZAT"

Esan daiteke Xabier Alberdi saioko gai-jartzailea dela?

Bai. Kontua da, Zubietan gertatutako pasarteak izanik, dauden bezala jasotzea. Gero, Andoni Egaña eta ni deitzen gaitu, eta Alberdik kontatu duen horri gehigarri bat eransten diogu bertsotan. Batzuetan, guk asmatu eta gertatu ez zen zerbait bertsoetan kontatzen dugu, bai fikziotik, baita umoretik ere. Xabierrek jasota dauden benetako zortzi pasarte kontatzen ditu, eta gero, guri pertsonaia pare baten rolean jartzen gaitu.

"XABIERREK ARGAZKIAK JARTZEN DITU PROIEKTOREAN, PASARTEA HOBETO ULERTZEKO"

Nola antolatzen dituzue saioak; zuek deitzen duzue herrietara edo alderantziz izaten da?

Lekuetatik deitu izan gaituzte, eta beste batzuetan, Zubietaren kasuan, bertako herri jaietan bertsotan izan ginen eta "Herrimamituz" zer zen azaldu genien. Harremana dugunez bertso eskolakoekin, Zubietan saioa egitea erabaki genuen.

Hasieran, udaletxeen artean zabaldu genuen proiektua eta orain denetik izaten da; guk proposatzen dugu edo haiek guri proposatzen digute.

Nolako harrera izaten du "Herrimamituz"-ek?

Harrera ona. Batetik, bertsozalea denak baduelako parada bertsoez gozatzeko, eta bestetik, askotan bertsozalea gehiegi izan gabe baina historia gustuko duenak, saioa amaitzean Xabierrengana gerturatzen dira, eta email trukaketa bat egoten da. Horrelako pasarteak entzuteak jakin-mina sortzen du. Batzuetan gai sentikorrak ateratzen dira herrikoentzat. Aginagan egin genuen saio bat, eta badakit zenbait konturekin hangoekin harremanetan jarri zela. Badauka bere mamia, azken finean, herriko pasarteak kontatzeak horixe du.

Pasarte horiek ahoz bakarrik kontatzen dira edo nolabait biltzen dituzue?

Xabierrek argazkiak jartzen ditu proiektorearekin, kontatzen ari den hori jendeak irudikatu dezan. Saioak grabatzea pentsatu genuen, baina ez zen aukera gauzatu.



Laguntza biltzeko Afari Solidarioen taldeak Sutegi atarian jarritako postua.

Laguntza biltzen, Afari Solidarioen dinamikari eusteko

Aitzaga Elkarteak azaroaren lehenean antolaturiko 30. Artisau Azokak elkartasun txokoa izan zuen Sutegi atarian; Usurbilgo Afari Solidarioen taldekoena hain zuzen. Laguntza biltzen aritu ziren; dirua eta elikagaiak. Horrez gain, Donostiako KAS taldeak aterata-ko materiala ere salgai jarri zuten. Udan, Donostian tuperrak banatzea eragotzi ostean, otartekoak prestatzen hasi behar izan zuten. Horrek eragindako aparteko gastu ekonomikoari aurre egiteko baliatu nahi zuten laguntza bilketa.



Hilero zineforuma antolatzen hasiak dira helduenentzat Txirikordan.

Txirikorda, zineforumaren bueltan helduenen topalekua

Zineforuma antolatzen hasi dira helduenentzat Txirikordan, hilero azken ostegunetan. "El abuelo que saltó por la ventana y se largó", Jonas Jonassonen izen bereko liburuan oinarrituriko filma eskaini zuten urriaren 29an. Egoitzatik ihes egindako ehun urteko protagonista du kontakizunak. Hurrengo proiekzioa, azaroaren 26rako iragarri dute, arratsaldeko 16:30etan. Urriko proiekzioan egin bezalaxe, hurrengo saioaren egunean bertan zehaztuko dute eskainiko duten ikus-entzunezkoa zein izango den.

Itxoitera eseri,
eta denborarik ez
egunkaria zabaltze...

HEMEN DA
TOPO
BERRIA

TOPO berria, inoiz baino arinago.
Esaldia bukatzeko astirik ere ez!
Hiru geltoki berri eta tren bat 7,5 minuturo
Añorga eta Pasaia artean
Berrestreinatu! Azaroaren 21etik aurrera

+info
topo.eus
euskotren
etsi euskal trenbide sarea
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE

Eskulangileen topagunea, bisitariez josia

Aitzaga Elkartearen 30. Artisau Azokak hamarnaka eskulangile eta bisitari mordoa erakarri zuen azaroaren lehenean.



Bisitarien joan-etorria etenik gabekoa izan zen, azaroaren 1eko Artisau Azokan.

Eskulangintzak bere egun seinalatua izan ohi du Usurbilgo herri bizitzan, Aitzaga Elkartearen Artisau Azokari esker. 30. edizio borobil honetan ere frontoia eta Dema plaza hartu zuten askotariko hamarnaka eskulangileek azaroaren lehenean. Bitxigintza, arropa, osagarriak, jakiak, artelanak, egurgintza... askotariko postuak bisitatu ahal izan ziren. Postuon bidez irudikatzen dira bisitariak eta nola ez, sortze lanen atzean diren egileak. Batzuk eta besteak, eskulangintzaz nahiz erakusmahaietako eskaintzaz hartuemanetan aritu ziren, elkar ezagutzen nahiz salerosketetan. Oraingoan, ohi baino lehenago hasi zen nabarmentzen haien joan-etorria.

Herri honek ere izan zuen zer erakutsia azaroaren lehenean. Herri ordezkaritza zabala izan zuen 30. Artisau Azokak. Batzuk, urtean zehar eskuz ondutakoa ikusgai eta eskuragarri jarri zuten. Izan zen, azoka jaki goxoekin dinamizatu zuenik ere; Udarregi ikastolako ikasleak ikasturte amaierako bidaiarako laguntza biltzen aritu ziren. Ilara ederra osatu zen baita, herriko gaztaingileekin batera, bertaraturikoen gosea asetzen gogotik ahalegindutako Usurbilgo talogileen taldea ere.

30 edizioen ostean, bizi asko segitzen du gure artean, Aitzaga elkartearen ekimenak. Artisauenarekin urte amaierako azoken zikloan gara. Hurbilagoren Udazkeneko Azoka eta 25. Erle Eguna izango ditugu hilabete amaieran.

"HERRI HONEK ERE IZAN ZUEN ZER ERAKUTSIA AZAROAREN LEHENEAN"



Eskulangileek haien sortze-lanak gogotsu aurkeztu zituzten.



Herri ordezkaritza zabala izan zuen 30. Artisau Azokak.



Artisau herrikideek ez zuten bisitaririk falta izan.



Gaztaingileekin batera, herriko talogileak jo eta su aritu ziren auzolanean.



Azaroak 11ko greba orokorrera begira, herrian esekitako LAB sindikatuaren pankartetako bat.

"Mobilizazio sozialak eta grebek funtsezko garrantzia dute"

Etxebizitza eta soldata duinen aldeko greba orokorra deitua dago azaroaren 11rako. Usurbilgo LAB asanbladak hainbat mobilizazio deitu ditu, bezperako kanpalditik hasita.

ARITZ LASARTE

Aurrekaririk gabeko greba orokorraren atarian gara. Soldata duinak izateko eskubidearekin batera, etxebizitza duinen aldeko greba eguna deitu dute azaroaren 11rako LAB, ELA, ESK, STEILAS ETXALDE, HIRU sindikatuek Etxebizitza Sindikatuen Sarearekin eta Etxebizitzaren Sindikatu Sozialistarekin batera. "Azaroaren 11n, etxebizitza eskubidea bermatu dadin eta espekulazioari ezetz esateko eguna izan dadin deia egin dugu"; horrez gain, "baita langileon pobretzearen aurka eta soldatak igotzearen alde, eta denon eskubideak bermatuko dituzten kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalen defentsan", sindikatu deitzaileen esanetan. Bide batez, "eskuin muturraren agendaren aurkako greba" ere izango dela jakinarazi dute. "Izan ere, bete-betean bizitzen ari gara talka bat: batetik, sakoneko birbanaketa politiken, gehiengoen interesen, eskubideen zabalpenaren, eta, oro har, bizitzaren aldeko defentsa; eta, bestetik, pribilegiatuen, errentismoaren, negozioaren eta kapitalaren agenda erreakzionarioa".

Etxebizitzarako sarbidea, garestiegi

Usurbilen, segidan dituzuen mobilizazioetan parte hartzeko deia egin dutenen artean da Ernai Usurbil. Aipatu gazte antolakundeak eta LAB sindikatuak elkarrekin landutako Hego Euskal Herriko "gazteen argazki sozioekonomikoa" aurkeztu dute egunotan. Dokumentu horrek gazteak egoera zaurgarrian direla baieztatzen duten hainbat datu argigarri plazaratu ditu. 1.500 euro baino gutxiagoko soldata du, 25 urtetik beherako bost gaztetik bik (%39,26) eta 30 urtetik beherako hiru gaztetik batek (%32,13). Ehun euro gehiagoko soldata erreferentzia gisa hartuta, gazteek bizi duten prekarizazioa are nabarmenagoa da: 1.600 euro baino gutxiagoko soldatak dituzte 25 urtetik beherako bi gaztetik batek (%48,25) eta 30 urtetik beherako bost gaztetik bik (%40,50). Ondorioz, gazteen ehuneko handi bat alokairuan bizi da. "Funtsean, ikusten duguna da 25 urtetik beherako gazteek soldataren %78 bideratzen dutela alokairua ordaintzera. Ondorioz, %22 gelditzen zaie gainontzeko gastuei aurre egiteko". Horregatik, bideraezina da alokairuko etxebizitza batean bakarrik bizitzea. "Irtenbidetzat hartzen da pisua partekatzearen ideia, izan ezezagunekin, lagunekin edo bikotekidearekin. Izan ere, etxebizitzaren prezioak 2015etik igoera esponentziala izan du, baina batez besteko soldatak ez du logika bera jarraitu".

"1.600 EUROTIK BEHERAKO SOLDATAK DITUZTE, 25 URTE BAINO GUTXIAGOKO BI GAZTETIK BATEK"

"25 URTETIK BEHERAKO GAZTEEK SOLDATAREN %78 BIDERATZEN DUTE ALOKAIRURA"

Etxebizitza erosteari dagokionean, gazteok jasotako diru-sarreren %30 etxebizitza ordaintzera bideratuz gero, 2024tik zenbatzen hasita, "30-31 urte beharko lituzkete, batez beste, etxebizitza sozial bat ordaintzeko. Etxebizitza libreen kasuan, ordea, 53 urte beharko lituzkete". Adin tarte guztien batez bestekoa kontuan izanda, 19 urte behar dira babes ofizialeko nahiz etxebizitza sozialak ordaintzeko eta 35 urte, salmenta libreko etxebizitzen kasuan.

Ernaik eta LAB-ek landutako dokumentuak ondorioztatutakoaren arabera, "lan-baldintzak urteekin zertxobait hobetzen badira ere, soldaten bilakaerak ez du etxebizitzaren

prezioen gorakadaren erritmoa jarraitzen. Horixe bera da arazoa areagotzen duena. Datuek argi erakusten dute, gazteen etxebizitza-irisgarritasuna egoera larrian dagoela".

"Urrats bat aurrera"

Horregatik, "pobretzearen eta prekarizazioaren aurrean, antolakuntzarako eta borrokarako deia" egin dute aipatu bi eragileok azaroaren 11n. Euskal gaztediari aktiboki parte hartzeko gonbita egin diote. Ernaik bere aldetik, "urrats bat aurrera" izeneko proposamena plazaratua du, "Euskal Herriko gazte oro duintasunez bizi dadin". Etxebizitza duina eta eskuragarria izatea da proposamen horren erronketako bat. Haien dokumentuan bildutako datuek argi erakutsi bezalaxe, Hego Euskal Herrian 30 urtekoa da emantzipatzeko batez besteko adina (Europan, 26,2koa). Azken hamarkadari dagokionean, 2015ean gazteen %36,8a emantzipaturik zen; egun, "aldiz, %32ra ere ez da iristen". Ernaik plazaraturiko zenbaki gehiago; alokairuaren batez besteko prezioa ia 800 eurokoa da, "EAEn ia 40.000 gaztek Etxebiden laguntza eskaera egina dute. Hego Euskal Herrian, %32ak senideen laguntza jasotzen du alokairuari aurre egin ahal izateko". Arazoaren erroan dago konponbidea, Ernaik landutako dokumentuaren arabera. Euskal Herriko behar eta baldintza propioak kontuan hartuta, etxebizitza negozioa izatea saihesteko politikak diseinatu eta abiarazi behar dira. Informazio gehiago, urratsbataurrera.ernai.eus atarian jaso daiteke.

Funtsezko greba

Greba deialdi honen atarian, Ernai Usurbil gazte antolakundetik aditzera eman dutenez, "etxebizitzaren arazoa ez da gaur egungo kontua, arazo estruktural sakona da, sistema kapitalistaren barruan etxebizitza oinarrizko eskubide izateari utzi eta negozio tresna bihurtu delako. Egungo egoera politika publikoen ezintasunaren ondorioa da, ez baitute funtsezko ideia bat zentroan: etxebizitza duin batera sartzea oinarrizko eskubidea dela. Etxebizitza negoziorako bitarteko gisa erabiltzen da, kapitalaren logika aseezinaren ideiak ardaztua dagoelarik".



"Urrats bat aurrera" aldarripean, Ernaik urria hasieran Lasarten eginiko eskualdeko elkarretaratzea. TXINTXARRI

Baina, argi denez, "etxebizitzak negoziorako bitarteko izateari utzi behar dio eta etxebizitza eskubidea bermatu behar da. Arazo honi aurre egiteko bi lehentasun nagusi daude", gazte antolakundearen esanetan; "batetik, Euskal Herriak burujabetza behar du etxebizitzaren inguruan lege eta arau propioak eraikitzeko eskumenak izateko, espainiar zein frantziar estatuek ez baitituzte gure beharrak aseko. Bestetik, politika horiek gure behar politiko, ekonomiko, sozial eta sindikal propioetatik abiatuta diseinatu behar dira, etxebizitza eskubide gisa errespetatzeko".

Lehentasunok gauzatze bidean, Ernai Usurbilen esanetan, "mobilizazio sozialak eta grebek funtsezko garrantzia dute aldarrikapen hauek hauspotzeko eta Euskal Herrian lurraldetuta dimentsionatzeko. Greba orokor honetan, beraz, ikuspegi hori indartzea dagokigu, Euskal Herrian ditugun baldintzez hitz egitea, eta azken urteetan egindako aldarrikapen, zein borroken bidetik tira egitea. Euskal Herrian baditugu baldintzak herri sektorea zentroan izango duen proposamen askatzaileei bide emateko, eta bide honetan, greba orokorrak, ekarpena egiten du".

Horregatik, azaroaren 11ko greba eguna, Hego Euskal Herriko bi gobernuei, Eusko Jaurlaritzari zein Nafarroako Gobernuari ondorengoa eskatzeko baliatu nahi dute: "gutxieneko soldataren eta orohar, soldata duinen defentsa; alokairu mugagabeak eta prezioen jaitsiera; etxegabetze guztien gelditzea; funts putreen espropiazioa eta parke publikoaren handitzea eta indartzea; eta, azkenik, etxebizitzaren erabilera espekulatiboa debekatzea". Usurbildarrak greba egunarekin bat egin eta iragarritako mobilizazioetan parte hartzera deitu dituzte.

"ETXEBIZITZAREN ARAZOA, ARAZO ESTRUKTURAL SAKONA DA"

"ETXEBIZITZAK NEGOZIORAKO IZATEARI UTZI BEHAR DIO"

Etxebizitza eta soldata duinen aldeko greba

Azaroak 10, asteartea
18:00 Kanpalekuaren muntaketa Mikel Laboa plazan.
20:00 Asanblada informatiboa eta propaganda bilkura.
Ondoren, afaria.
22:00 Kalebira.

Azaroak 11, asteazkena
05:00 Goizeko bilkura.
09:00 Grebalarien gosaria Mikel Laboa plazan.
10:30 Herri argazkia: "Etxebizitza eskubidea, ez negozioa".
11:30 Kotxeen juntadizoa Donostiko mobilizaziora.
12:30 Mobilizazioa Donostian.
17:30 Lasarteko mobilizaziora martxa.
18:30 Mobilizazioa Lasarten.
Antolatzailea: Usurbilgo LAB Asanblada.



Ioritz Rasero eta Aiala Orbegozo, Usurbilgo Etxebizitza Bulegoko langileak, egoitza horren atarian.

"Hutsik diren etxeen jabeak aktibatu behar ditugu"

IORITZ RASERO UDAL ETXEBIZITZA BULEGOA

Etxebizitza gaiei lotutako aholkularitza eskaintzen dihardu, irailetik zabalik den Usurbilgo Etxebizitza Bulegoak. Xehetasunak bertako langile Ioritz Raserok eman dizkigu.

ARITZ LASARTE

Zer nolako harrera izan du Udal Etxebizitza Bulegoaren irekierak?

Ioritz Rasero: Harrera oso ona, oso pozik gaude. 61 hitzordu izan ditugu, hogei bat presentzialak. Etxebizitza promozio berriez galdetu nahi izan nahiz etxea alokairuan jarri nahi dutenak etorri dira. Behar duen ororentzako informazioa eta bidelaguntza eskaintzen dugu. Horrez gain, etxe hutsak aktibatu nahi ditugu. Dagoeneko lau, alokairura bideratu dira. Aurrez eginiko diagnosian zenbatutako Usurbilgo 99 etxe hutsetatik sei bizilekuetako jabeek saldu edo alokatzeko asmoa dute.

Etxe hutsen aktibazioa abian da beraz.

Bulegoa iraila hasieran irekitakoan izan zen lehen mugimendua, gero bizileku hutsen jabeek gutuna jaso zutenean eta, azkenik, bulegoari buruzko eskuorriak etxez etxe banatu direnean.

"99 ETXEBIZITZA HUTSETATIK SEI BIZILEKUETAKO JABEEK SALTZEKO EDO ALOKATZEKO ASMOA DUTE"

Azkenaldian izandako gertakariek ere eragin dute aktibazio horretan?

"Mari Carmen" izenez ezagun eginiko dekretuaren harira, bada horrekin zer gertatuko den argitzeko hauteskundeak igaro arte itxarongo duela esan digun etxejaberik. Azkenean, sarritan onartzen dira etxebizitzari lotutako dekretu berriak. Horrek nahasmendua eragiten du jendartean, oso zaila baita jakitea zer dekretu hartu behar den kontuan. Horregatik, sarritan gertatzen zaigu guk ere kontsultak egin beharra izatea. Zer dekretu kontuan hartu behar den, ez dago jurisprudentzarik.

"USURBILGO HERRIARENTZAT ONURAGARRIA IZANGO DA ETXE HUTSAK AKTIBATZEA"

Hutsunea dago.

Antzeko lege gehiegi egin da. Horrek zenbait etxejabe atzerapausoa ematera bultzatu ditu. Baina haiei esan nahi nieke, egun, abantaila eta onura gehiago dituela etxebizitza alokatzeak ez alokatzeak baino. Hobari fiskalak dituzte. Beldurretako bat izaten dutena da, maizterrak betiko geratuko zaizkiela etxean. Baina dekretu eta legeek ez dute halakorik adierazten. Hedabide batzuek sustatutako beldur hori desaktibatzeko, hori egia ez dela erakutsi eta etxea alokatzea segurua dela ikusarazteko gaude.

Kasu bakoitza banan-bana aztertu beharra eskatuko du zuen lanketak?

Hori da udal bulegoak eskaintzen duen abantaila. Kasu bakoitza banan-bana aztertzen dugu eta emandako konponbidea pertsonalizatua da. Etxejabeek pentsatu behar dute haientzat, maizterrentzat eta Usurbilgo herriarentzat onuragarria izango dela etxe hutsak aktibatzea. Usurbildarrek herrian geratu nahi dute bizitzen. Hori udal gobernuak soilik ezingo du bermatu etxebizitza berriak eraikita, herriak bestelako erantzunak eman beharko ditu. Denok batera konponbide bat eman beharko diogu bizi dugun egoerari. Usurbil bizia nahi badugu, bizitza hori erraztu beharko da.

Etxebizitza negozio gisa baliatzeari uzteko bide luzean non gaudela esango zenuke? Aurrerantz goaz?

Jendeak oraindik etxea dirua irabazteko baliatzen du, baina mugatu egin behar da. Bi profil nabarmendu ditugu Usurbilen; bada herentzian jasotako etxebizitza edo haurtzarokoa hutsik duena edo arrazoizko prezio batean alokatua duena. Badira, ordea, etxebizitza dirua irabazteko baliatzen dutenak. Etxebizitza inbertsio moduan erabiltzen denean, horren kontra egon behar dugu. Herri berdinean bigarren etxebizitza duenak hainbat betebehar ditu; ondo mantentzea edota erabilpen soziala izatea. Bi etxebizitza izateko pribilegioa duenak betebehar moral edo etikoa du bigarrena norbaitentzako bideratzekoa.



Garai bateko gizarte zerbitzuen egoitzan kokatua dago Usurbilgo Etxebizitza Bulegoa.

Betebehar horrek legala izan beharko luke? Konponbidea, hein batean, hortik etor daiteke?
Bai, baina horra heldu baino lehen, beste neurri batzuk hartu beharko lirateke. Pedagogia lana egin behar da, hori da bulego honek eskaintzen duena. Ardura denona da. Horregatik, denon arteko lankidetza izan behar da.

Hainbat kolektibo zaurgarri daude etxebizitza beharrean. Zuengana gerturatu dira?
Bulegora, batez ere, Usurbilen jaiotakoak etorri dira. Agian, bada herriaren zati bat, uste duena eskubide gutxiago dituela etxebizitza bat eskuratzerakoan, gai honetan ere arrazakeria dagoelako. Bi posizio ekonomiko daude orohar: bertan jaiotakoek ekonomikoki laguntzeko sarea dute, etorkinek ez.

Konponbidea etxeak eraikitzea izatea, bat zatoz ideia horrekin?
Arazo horri aurre egiteko ezin dugu pentsatu eraikitzea soilik aski denik. 2000. hamarkadan izugarri eraikita ere, prezioak bikoiztu eta hirukoiztu ziren. Askotariko tresnak behar dira: etxeak eraikitzea, etxe hutsak aktibatzea, indarrean diren hobari fiskalak aplikatzea... Usurbilen, hor dira Txirikorda edota bizi osorako etxebizitzak ere. Usurbil aitzindaria da. Egunotan, Bartzelonatik datoz alor honetan Usurbilgo proiektuak ezagutzera. Harro egoteko modukoa da.

Udal etxebizitza bulegoak baliabide horien guztien lotunea izan nahi du?

"PEDAGOGIA LANA EGIN BEHAR DA, HORI DA BULEGO HONEN ESKAINTZA"

Etxebizitza politiken erreferentzia gunea izatea nahi genuke. Maizter gutxi gerturatu da. Haiek etortzera gonbidatu nahi nituzke, kontratuei buruzko zalantzak argitzera, adibidez, batzuetan legezkoak ez diren klausulei buruzko argibideak jaso ditzaten.

Etorkizunera begira, zer bide egin dezake larrialdi egoera honek?
Neurriak orain hartzen hasita ere, etxebizitzaren arazoa hurrengo hamarkadako erronka izango da. Horregatik, etxeak eraiki arren, hutsik diren etxeen jabeak aktibatu behar ditugu, larrialdi egoera hau leuntzeko.

"ETXEBIZITZAREN ARAZOA DATORREN HAMARKADAKO ERRONKA IZANGO DA"

Etxebizitza hutsak Usurbilen

• 409 pertsona edo bizikidetza-unitate bizileku eske Etxebiden: 180 Usurbilen erroldatutakoak (%44,01), gainerako 229ak (%55,99) ez.
• %44,3tik %31,8ra murriztu da gazteen emantzipazio-tasa, 2011tik hona.
• Ustez bizilagunik gabeko 166 bizilekuetatik 99 (%60) mobilizatzeko aukera.
• Arazoak: herentziak eta gatazkak, eraberritzeen beharra, beldurrak eta mesfidantza…
• Etxebizitza bulegoaren eskaintza: bitartekaritza eta aholkularitza juridikoa, bermeak alokairuan, dirulaguntzen kudeaketa, onura fiskalak...
• Informazio gehiago:
Kale Nagusia, 43 behea (asteazkenak, 14:00-19:00 eta ostiralak, 09:00-14:00).
722 151 640 (09:00-15:00).
Posta elektronikoa: etxebizitzabulegoa@usurbil.eus

943 361182
EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL

ANDATZA TABERNA
EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
8:00 - 21:30 Asteartea eta asteazkena
8:00 - 22:30 Osteguna eta igandea
8:00 - 23:30 Ostirala eta larunbata
Kalezar Auzoa 12, OB, USURBIL Tel 943 73 20 27

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
www.noaua.eus



Mankomunitatearen esanetan, "funtsezkoa da gaian inplikaturik dauden aktore guztien ahotsak entzutea". BETERRIBURUNTZA.EUS

Eragile aktibo izateko deia luzatu die Beterri-Buruntza mankomunitateak lurraldeko enpresei

Eskualdeko Enplegu eta Tokiko Garapen Plana osatzen ari dira eta Beterri-Buruntza mankomunitateak, egoeraren erradiografiarik osoena ateratzeko asmoz, "enpresek era eroso batean bete ahal izan dezaten inkesta bat jarri dugu euren esku".

IMANOL UBEDA

Beterri-Buruntza mankomunitatean eskualdeko Enplegu eta Tokiko Garapen Plana osatzen ari dira buru-belarri, bertako enpresen lehiakortasuna eta lurraldeko enpleguaren sorrera eta hobekuntza bultzatzera bideratutako proiektua. Egitasmo honek lurraldeko enpresa eta eragile guztiek dituzten benetako beharrei erantzun diezaien, "funtsezkoa da gaian inplikaturik dauden aktore guztien ahotsak entzutea eta horretarako era erraz batean bete daitekeen inkesta bat prestatu dugu Enplegu sailetik".

Galdetegiaren esteka

Diagnostikoa "aurreiritzi edo usteekin baino, eskualdeko enpresen datu errealekin osatze aldera", lurraldeko enpresei esteka honetan aurkituko duten galdetegia betetzeko deia luzatu diete, "elkarrekin osatzeko bide emankor baten lehen urrats gisa". Hauxe da estekaren laburdura: labur.eus/jrb26heo

Hainbat dira diagnostiko hau ahalik eta osoena eta parte-hartzaileena izateko Beterri Buruntza mankomunitatetik aipatzen diren arrazoiak. "Hasteko, langileen, prestakuntzaren, digitalizazioaren, belaunaldien arteko erreleboaren edo talentua erakartzearen arloan enpresek dituzten beharrak antzemateko tresna oso egokia izan daitekeela uste dugu", prentsa-ohar bidez Beterri-Buruntza mankomunitateak aditzera eman duenez.

Gainera, mankomunitateko enplegu sailetik nabarmendu dutenez, "eskuragarri dauden baliabide eta laguntza publikoak benetan behar diren lekura bideratzeko" ere lagungarria izango da egoeraren ezagutza ahalik eta sakonena izatea.

Era berean, gogorarazi dute, aurrerago eskualdeko Enplegu eta Tokiko Garapen Planaren baitan hartzen diren erabakiek eta martxan jartzen diren egitasmoek eragin zuzena izango dutela enpresengan eta horregatik garrantzitsua izan daitekeela eragile ekonomikoentzat proiektuan hasiera-hasieratik parte-hartzea.

2026ko azken tasak ordaintzeko garaia

Indarrean dira urtarrilaren 1az geroztik, 2026. urte honetarako Udalak onarturiko zerga, tasa eta prezio publikoak. Horiek ordaintzeko egutegi fiskala ere onartua du Udalak. Egutegi horri erreparatuta hain zuzen, aurtengo azken tasak ordaintzeko garaia heldu da. Urriaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez jakinarazitakoaren arabera, "alkatearen dekretuz 2026ko emakida administratiboari dagokion tasaren errolda onetsi da". Haren errolda kontuhartzailetzan hilabetez aztertzeko jarria izango dute, hilaren 30etik zenbatzen hasita. Borondatez ordaintzeko epealdia ere finkatua du Udalak, azaroaren 2tik abenduaren 2ra arte.

TXAPELDUN
ARDANGELA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA
Muna lurra 2, 943 49 88 83

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN
943 360 321
noaua@publizitatea.eus

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox. altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno.943593303 • Mugikorra: 677463867

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Kirol-esparruko gazteei edo irakasleei alokatzeko gela bat daukat Usurbilen. 658706447

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943 498 917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529.

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harremanetarako: 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Titulu soziosanitarioa eta erreferentziak dituen emakume bat naiz eta zaintza lanak, interna moduan zein orduka aritzeko lan baten bila nabil Usurbil edo inguruan. 618814363.

Adineko pertsonak zaintzeko prest, orduka nahiz lanaldi osoz. 618814363.

Gauez pertsona helduak zaintzeko lan bila dabilen neska bat naiz. Titulazioa eta 25 urteko esperientzia dauzkat. 609647728.

Plantxa-zerbitzua edo laguntzaile lanetan orduka aritzeko lan bila dabilen emakume bat naiz. 614349021.

Etxeko lanetarako nahiz zaintza lanetarako lan bila nabil. 676 282 206.

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia dauzkat. Interna moduan, orduka, gauez edo egunez, astebukaeratan. Ikasketa homologatuak. 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua. 747 446 091.

BESTELAKOAK

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

90 zm-ko ohe artikulatu bat koltxoiarekin eta besaulki edo butaka artikulatu motordunak dauzkagu salgai. 605280119.

Futbol partidak

Haranen

Azaroak 7, larunbata

- 09:00 Mutilen Infantil Handiak: Usurbil FT-Zumaiako F.T.
- 10:30 Infantil nesken F-8: Usurbil FT-Lagun Onak CD
- 12:00 Gizonezko kadeteen 1. maila: Usurbil FT-Internacional CD B
- 13:45 Emakumezko kadeteen 1. maila: Usurbil FT-Tolosa C.F. B
- 18:00 Gizonezkoen Gorengo Maila: Usurbil FT-Roteta C.D.

Haranetik kanpo

Azaroak 7, larunbata

- 10:00 Gizonezko kadeteen 1. maila, Azpeitiako Garmendipen: Ikasberri K.E. B-Usurbil FT B
- 12:45 Mutilen infantil txikiak, Andoaingo Ubitarten: Euskalduna Andoaindarra S.D.-Usurbil FT
- 16:30 Gizonezko erregionalen 1. maila, Zestoako Iraetan: Zestoa K.B.-Usurbil FT B
- 19:30 Gizonezko jubenilen Gorengo Maila, Tolosako Usabalen: Tolosa C.F. C-Usurbil FT

Azaroak 8, igandea

- 17:30 Emakumezkoen ohorezko erregional maila, Donostiako Berion: Antiguoko K.E. B-Usurbil FT

Eskubaloi partidak

Oiardo kiroldegian

Azaroak 6, ostirala

- 20:00 Jubenil neskak, territorial maila: Cortes Usurbil K.E.-I&D Trans Bidasoa Irun

Azaroak 7, larunbata

- 15:45 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Pulpo EK
- 17:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E. A-Mapfre Pulpo EK
- 19:00 Senior neskak, 2. territorial maila: Urbil Usurbil K.E.-Alkain Bidasoa Irun

Azaroak 8, igandea

- 08:45-14:15 Benjaminen eta alebinen topaketa.

Oiardotik kanpo

Azaroak 7, larunbata

- 10:15 Kadete neskak, territorial maila, Zumaiako Lubaki kiroldegian: Amama Taberna Pulpo EK-Usurbil K.E.
- 18:30 Senior mutilak, Lehen Nazionala, Zumaiako Lubaki kiroldegian: Sukia Pulpo EK-Saizar Usurbil K.E.

Azaroak 8, igandea

- 10:00 Infantil neskak, Elgoibarko Olaizaga kiroldegian: Elgoibar-Usurbil K.E.
- 13:15 Senior mutilak, 2. Territorial maila, Zumaiako Lubakin: Pulpo EK-Usurbil K.E.

Oharra: Jubenil eta infantil mutilen taldeen territorial mailetako partidak zehazteko.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa
Mezua bidali *erredakzioa@noaua.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa
Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.



HILDAKOEN BERRI EMATEKO:
943 360 321 edo
erredakzioa@noaua.eus

- ▶ Asteleheneko 17:00ak arte jasotakoak emango ditugu argitara.
- ▶ Gainontzekoak, hurrengo asteko astekarian.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 05

KALEZAR "Komunitatetik heriotzaz" zikloko solasaldia

Argelia, Sahara, Euskal Herria eta Venezuelako herritar banak parte hartuko dute. Gonbidapenak aurrez eskuragarri usurbilkultura.eus plataforman.
18:00 Sutegin.

OSTIRALA 06

AGINAGA Mikel Urdangarinen kontzertua

Sarrerak 15 eurotan, mikelurdangarin.eus webgunean.
19:30 Eliza Zaharrean.

LARUNBATA 07

USURBIL Mundualdia

10:00 Zirimara Familia Plana.18:00 Hainbat jatorrietako jakien dastaketa, Kolonbiako dantza eta musikaz lagunduta.
Egun osoko jardunaldia.

IGANDEA 08

USURBIL Film proiekzioa Sutegin

"Patrick. Heroi txikiak. Balentria handiak" euskarazko filma. Sarrera: 3,30 eurotan, aldez aurretik usurbilkultura.eus.
17:00 Sutegin.



Igande honetan, arratsaldeko 17:00etan hasiko da euskarazko film proiekzioa.

"Patrick", haurrentzako filma Sutegin

Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkartearekin lankidetzan udazken eta negu parterako antolaturiko gaztetxoentzako euskarazko zine zikloa bueltan da. Iganderako, azaroaren 8rako iragarri dute lehen proiekzioa; "Patrick. Heroi txikiak. Balentria handiak" izeneko filma. Arratsaldeko 17:00etan Sutegiko auditorioan proiektatuko duten ikus-entzunezkorako sarrerak aurrez eskuratu beharko dira 3,30 euroren truke, usurbilkultura.eus plataforman. Hemen, filmaren aurrerapena: "Patrick izeneko hegal bakarreko tximeleta ausart eta maitagarri bat atoi batean ezkutatzen da bere bizitzako bidaia egiteko. Horretarako, bere beldur handienari aurre egin eta bere berezitasuna onartu beharko du zoritxarraren gainetik garaile ateratzeko, klima-ereduen aldaketen, gizakien eta mendeku bila dabiltzan hiru txori gaiztoen aurka borrokatzen den bitartean".

Mikel Urdangarin, Aginagan

Ostiral honetan, azaroaren 6an, eskainiko du bere "Uhina" izeneko biraren baitako kontzertua 19:30etan Aginagako Eliza Zaharrean. Bizimaña herri kooperatibak antolaturiko hitzorduko sarrerak aurrez eskuratu ahalko dira mikelurdangarin.eus atarian.

Bisita gidatuak

650 Usurbil Bizi herri egitasmoak hurrengo asteotarako antolaturiko bisita gidatuen berri duzue segidan:

Azaroak 7, larunbata
11:00-12:15 Gerraren memoria ibilbidea bisita gidatua.

Azaroak 8, igandea
11:00-13:15 Bisita gidatu konbinatua: Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudioa.

Azaroak 22, igandea
11:00-12:30 Museo Irekia familientzako Krii Kolektiboarekin.

Azaroak 25, asteazkena
10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Azaroak 27, ostirala
10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Abenduak 12, larunbata
11:00-12:30 Salbatore elizaren ondarea eta organo erakustaldia (gaztelaniaz).

Erreserbak:
650usurbilbizi.eus

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patri
Patrieneo jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
✆ 943 362725 · ✆ 688 690 361

OFIZIOEN GIDA



IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L
·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA
630 90 02 79 AGINAGA

maiz hornigaiak
·TRESNERIA ETA ERREMINTAK
·EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA
suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

ITZIRA ERAIKUNTZAK
·gremioen koordinaketa
·berritze lanak
·sukaldeak
·komunak
943 530 337
722 818 206
errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

ARANKA BERRIKUNTZAK
·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra
Tel.: 606 37 21 05 info@arankaberrikuntzak.com USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
Hipodromo kalea 10, LASARTE
Tel.: 693 05 93 92 uraitz@uraitz.com

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

Antonio Urruzola
AROZTEGIA
687 845 599 - 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

USURBIL
J. R. IBARGOIEN S.L
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK
www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@hotmail.com
943 36 14 48 - 676 45 31 76

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
629 272 859
943 361 380
BORDA-BERRI 5,baxua USURBIL

hartele
Antenak - Atezainak - Bideo-zaintza
943 287 742 / 629 121 355

APARICIO
PINTURA LANAK
Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL

AÑORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
·komertzial instalazioak
·beira bikoitza ·segurtasun beirak
·dutxa-itxiturak eta irristailuak
943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA•GASA•AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA•ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
Tfnoa.: 600 024 825

zuri arrain iturgintza
TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarrainiturgintza@gmail.com



AZAROAK 21, 17:00etan. Oiardo Kiroldegian

Sarrerak: 8€ usurbilkultura.eus webgunean, azaroaren 5ean jarriko dira salagai.

www.katxiporreta.eus